

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

KULTURA ETA HEZKUNTZA SAILA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko martxoaren 27an hartutako erabakiaren laburpena; bertan onartzen baitira hezkuntza-premia berezien arloko elkarteek antolatutako hezkuntza-jardueretarako laguntzen deialdia eta oinarriak, 2026-2027 ikasturtea

BDNS (Identif.): 897198

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/897198>).

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu-base Nazionalean kontsulta daiteke.

Lehena. Elkarte onuradunak

Deialdia desgaitasunen batek edo jokabide-nahaste larriren batek eragindako hezkuntza-premia berezien eremuko elkartei zuzenduta dago. Irabazi-asmorik gabeko elkarteak izan behar dute, eta beren egoitza soziala Vitoria-Gasteizen izan behar dute, behar bezala justifikatutako salbuespenezko kasuetan izan ezik. Ezin izango dira elkarte onuradun izan Vitoria-Gasteizko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 11. artikuluan jasotako inguruabarrak betetzen dituzten elkarteak.

Bigarrena. Helburua

Dirulaguntzen deialdi hau 2025eko urtarrilaren 17an Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako dirulaguntzen plan estrategikoan (2025-2027) jasota dago.

2026-2027 ikasturtean egingo diren proiektuei laguntzea du helburu, baldin eta, aipatutako eremu horretan, honako helburu hauek badituzte: hezkuntza-komunitatea sentsibilizatzea, ikasleak edota haien familiak edota irakasleak babestea eta gaitzea, hezkuntza-eremuan elkarri laguntzea eta sareak prestatzea, eta eremu horretan genero-berdintasuna sustatzea.

Hirugarrena. Oinarriak

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko martxoaren 27an onartu zituen, eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

20.000,00 eurokoa da deialdiaren zuzkidura.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea irekita egongo da deialdi honen oinarrien laburpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita 2026ko maiatzaren 29ra arte, azken egun hori barne. Eskabideak epez kanpo aurkeztea dirulaguntzak emateko prozeduratik kanporatzeko arrazoi izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko martxoaren 27a

Kultura eta Hezkuntza Saileko zinegotzi ordezkaria
SONIA DÍAZ DE CORCUERA RUIZ DE OÑA